

TENISAREN ARAU ESPEZIFIKOAK 2020-2021 IKASTURTERAKO

1. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren izena.

- a. Kontakturik gabeko aukerak.
 - i. Banakako tenisa
 - ii. Taldekako tenisa
 - iii. Teknikakazio Jardunaldiak
 - iv. Arbitraje- eta guraso-prestakuntzako jardunaldiak

2. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren joko-erregelamenduak.

- a. Jarduera guztietan bolak estreinatuko dira.
- b. Atsedenerako jesarlekuen artean gutxienez 4 metro egongo dira.
- c. Taldekako txapelketetan, zain dauden jokalariek nahikoa leku izango dute ezarritako segurtasun-neurria mantentzeko.

3. Kirol-federazioek antolatutako lehiaketa edo jardueretarako jarduera-arauak.

- a.** Hidratazioa, banakako botilatxoa: lehiakide guztiek, arbitroek, arbitroek, teknikariek, coachak eta ekipoetako gainerako kideek banakako ur-botilatxoa eraman beharko dute, lehiaketaren aurretik, bitartean eta ondoren hidratatzeko.
- b.** Gel hidroalkoholikoa: etxeko taldeak esku-garbiketarako gela jarriko du parte-hartzaileen eskura. Ontzi bat etxeko taldearentzat, beste bat talde bisitariarentzat eta beste bat arbitro-taldearentzat, saskiratzailentzat eta kronometratzaileentzat.
- c.** Spray desinfektatzailea: etxeko taldeak spray desinfektatzailea jarriko du eskura topaketetan erabili ohi diren jesarlekuak edo aulkiak garbitzeko.
- d.** Maskarak: kapitainek, entrenatzaileek eta epaile guztiek maskara jantzita eraman beharko dute norgehiagokan zehar eta dagozkien aktak egin bitartean.
- e.** Ahal den neurrian, kanpoko pistetan eta aire librean jokatuko dira partidak.

f. Txandakako lehiaketen ordutegiak ezarriko dira, jesarlekuak edo aulkiak garbitzeko eta desinfektatzeko denbora bermatzeko.

4. Erakunde parte-hartzaileen barruan egin beharreko entrenamendu eta saioetarako jarduerak.

Ez da ezer espezifikorik aurreikusten